Argitaratze-data: 2023/05/11

# ESKARIA AURKEZTEA

**Epea**: 2023ko maiatzaren 15etik ekainaren 9ra arte, biak barne.

Jarraitu beharreko pausuak:

1. **ESKABIDEA** bete (parte hartu nahi duzun kategoria bakoitzeko eskabide bana). Izena emateko tasa ordaindu beharko duzu epe berean.

2. Aurkeztu online deialdian aurreikusitako **MEREZIMENDUEN** ziurtagiriaren kopia (deialdiaren 4. oinarrian eta eranskinetan adierazten den arabera).

**Oharra**: merezimenduen ziurtagiriak eskabidea amaitu eta erregistratu ondoren soilik aurkeztu ahal izango dira.

## ESKARIA

1.- Sartu:

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/ – «EPE 2022. Hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Onartzeko eskabidea»

edo

https://hezigunea.euskadi.eus/ – «EPE 2022. Hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua»



2.- Klikatu “Onartzeko eskabidea”




3.- Bete “Agiri mota” eremua eta sartu nahi duzun “Kategoria”, eta klikatu “Iragazkia aplikatu”.




4.- Bete eskariaren datuak.

Oharra: “Posta-kodea” betetzerakoan idatzi posta-kodea eta baliozkotu (posta-kodearen eskuinaldean dagoen botoi berdea sakatu). Aplikazioak automatikoki beteko ditu lurraldea eta udalerria.




5.- Sakatu “Datuak grabatu”.

6.- Lortu eskariaren ziurtagiria (“Interesatuarentzako alea”); horretarako, klikatu “Gordekin”.

7º.- Izena-emateko tasa ordaintzeko aukera agertuko da; honela ordaindu dezakezu:

- Online ordainketa, ordainketa-pasabidearen bidez, sistema berak erakusten dituen jarraibideei jarraituz. Horretarako, klikatu “Ordaindu”.

- Zuzenean ordaintzea adierazitako edozein bankutan. Horretarako, klikatu “Ordainketa-gutuna inprimatzea.”.

